

41

JESUS ETA PAULO APOSTOLUA

1

Damaskorako bidean,
Kristo galtzeko idean.
Saulo hor doa amorru biziz
lauhankan zaldi-gainean;
baina Jesusek eskuratu dau
errukiz ustekabean.

2

Saulo galdezka kezkatsu:
- “Ene Jauna, nor zara Zu?”
- “Ni Jesus naz ta erasopean
esan, zergaitik naukazu?
Akuiluaren aurka ostiko
egitea gogor jatzu”.

3

“Zelan Aitak erakutsi,
halan dot Jesus ikusi.
Ni bere aurka ibili arren,
Bera izan da nagusi;
gaurtik aurrera, danen gainetik,
jarraitzen deutsat Jesusi.

4

“O Paulo, Jesusen partez
zeugana natortzu artez”.
Ananiasek argitu eban
bere eskuen ezartez;
Jesusekin bat-egin da Paulo
bateoaren bitartez.

5

Lehen bildurrezko otsoa,
orain da bildots mantsoa.
Jesus ta Paulok egin dabena
bai topaketa gozoa!
Handik aurrera Jesusena da
gorputz t’arima osoa.

6

“Dohain ninduzun maitatu
eta errukiz bilatu.
Nire amaren sabeletik Zeuk
bai ninduzun aukeratu;
nik neurez ez dot besterik ezer:
gaiztakeri ta pekatu”.

7

Zaldi-gainetik eratsi,
orduan kontuan jausi..
Zuk gorrotatzen, Kristok maitatzen,
Berak deutsu irabazi!
Hortik zuretzat, Tarsoko Saulo,
zer zorion eta grazil!

8

O Arrantzale isila,
beti zabiltz gure bila!
Zureganatu zenduan Paulo,
burukalari abila;
beste hainbeste, eskatzen deutsut,
nigan gertatu dadila!